

## ANTZEEZLEA, GIDOIAREN HIZKUNTZA EGOKITZEN DUELARIK BERE EGIN ARTE



**Itziar Ituño**  
**Antzezlea**

### **SARRERA**

Ez da erreza horrelako izenburu potolo bati heltzea Basaurikoa eta euskaldun berria izanik. Intuizio hutsak gidatuko nau nire iritzia emoteko orduan. Beraz, hau ez da ezelango tesirik, ez teoria zientifikorik izango, baizik eta nire eskarmentutik ataratako ondorio eta hausnarketa batzuk.

Nire ustez, hizkuntza batek, munduan leku bat emotez gain, informazio asko emoten du pertsona edota pertsonaia bati buruz. Zelangoak garen, zelan gauden, zer energia daukagun, zer adin dugun... horren guztiaren adierazle dira erabiltzen diren moduak, esaerak, berba zehatzak, esamoldeak... baita bolumena, erritmoa eta kadentzia be, janzkera, orrazkera, mugitzeko modua bezain esanguratsuak. Hau da, hizkuntza gure izatearen parte da, bereizi egiten gaitu beste askoren artean. Denboran eta espazioan kokatzen gaitu, geografikoki eta baita sozialki be.

Horregatik, antzezteko orduan hizkuntzaren erabilerak berebiziko garrantzia daukala uste dut. Askok kontatzen du aurrean azaltzen zaigun pertsonari eta pertsonaiari buruz.

### **1. ANTZEZTEAN**

Antzezlea gizartearen matxinsaltoa da. Pertsonaiaz pertsonai dabil saltoka, estatus eta rol oso diferenteetatik igarotzeko aukera parebakoa du, era fiktizioan bada be. Pertsonaia batzuk berarengandik oso hurbil sentituko ditu, bere antz handiagoa dutelako, eta beste batzuk, berriz, lekutan. Horiek dira, hain zuzen,

gehien landu beharrekoak.

Pertsonaia bat gauzatzeko, osatzeko orduan, janzkera, mugimendua, duen energia erabakitzeaz gain, hizkuntza egokia be bilatu egin behar zaio. Lan sinplea dirudi horrek, baina ez da.

Antzerki arloan, esaterako, hizkuntza gehiago lantzeko aukera dagoela iruditzen zait. Prozesuak luzeagoak izaten direlako, intentsoagoak, eta esperimentu gehiago onartzen du antzerkiak. Hizkuntzagaz be esperimentatu ahal da eta egin izan da hainbat kasutan. Adibidez, antzezlan berberean euskalki bat baino gehiago erabiliz pertsonaiak osatzeko eta aberasteko.

Halan da be, azkenengo urteetan, aurrezteko asmotan edo, antzerki konpainia askok sortzeko entsegu garai horiek laburtu egin dituzte, eta horrek eragin zuzena izan du azken emaitzetan (hizkuntza lanketan be bai). Hau da, kasu askotan, atzera egin da nabarmen.

Gauza bera gertatzen da telebistan, okerragoa dela ez esateagatik. Bertan denborak urrea balio du. Dena arina eta zehatza izan behar da, eta irizpide ezin orokorrak ezartzen dira. Hizkuntzaren kasuan, batuaren aldera egin da telebistan, orokorrean, euskalkiak lantzeak askoz be denbora gehiago eskatzen duelako eta, jakina, ez dagoelako denborarik ezertarako be... (askotan pertsonaia bera be behar den moduan lantzeko betarik ez da izaten). Dena den, esan beharra dago egoera aldatzen ari dela, hoberako bidean. Honi buruz aurrerago berba egingo dut.

Zinemaren kasua gutxiago ezagutzen dut. Herri honetan zinema egitea miraria delako akaso, horren gutxi egiten denez... baina iruditzen zait denbora apur bat gehiago (ez asko) inbertitzen dela hizkuntza eta pertsonaia hobeto zaintzeko. Erdibidea dela esango nuke, eta jarrera orokorra euskara batuaren aldekoa izan arren, badaude inizatiba ausartak eta arrakastatsuak, normalean auzolan bidez eginak. Hor daude *Gartxot* eta *Xora*, adibidez, euren euskalkien aldeko apustuekaz.

## 2. AKTOREA GIDOIAREN AURREAN

Gauzak horrela, eta sistemaren eraginez *produktuak* ahalik eta arinen eta gehien saltzea denez helburu nagusia, eta ez kalitate handikoak izatea, zer gertatzen da aktoreak gidoiari aurre egin behar dionean? Ba, askotan ez duela topatzen irizpide orokorrik hizkuntzari dagokionez, eta berari tokatzen zaiola testua egokitzea, bereganatzea, hau da, eraiki duen pertsonaia zutik iraunaraztea hizkuntza propioa emonez. Hori oso ohikoa da telebistan. Kasu honetan zentratuko naiz orain.

Askotan gertatzen da euskara batuan idatzitako gidoei adostasun falta itzela izatea. Aste batean pertsonai berberak “mintzatu”, hurrengoan “berba egin” eta

hurrengoan “hitz egin” egingo du, agurtzeko orduan “zer moduz” edo “zelan” tartekatu... horrek denak linboan uzten ditu pertsonaiak, grisez tindatuta, zehaztu barik, izaera barik. Holangoetan aktoreari dagokio gidoiak zuzentzeko lan hori. Alde batetik ez da txarra aktoreak testua egokitze eskubidea izatea, sortzeko libertatea behar-beharrezkoa da eta . Aktoreok sortzaileak be bagara, ez txotxongilo hutsak.

Baina, bestetik, gidoi zuzenketa nekagarria eta korapilatsua bihurtzen denean, gauza errepikakorra denean, zalantza sortzen zaigu aktore batzuei ez ote gabilzan egiten beste batzuek egin beharreko lana, guri ez dagokiguna.

Ezberdintasun handia dago testua *zure* egitearen eta *zuzentzearen* artean (eta ez nabil akats gramatikalez). Hau da, esangura aldatu barik testua aldatzea naturaltasuna, organizitatea bilatzeko, hori aktoreari dagokiola uste dut, baina hizkuntza *oztopo* delako aldatu behar izatea, hori ez.

Antzezpenaren arlo bakoitzak bere berezitasuna be badauka. Zinematik antzerkira aldatu egiten dira kodeak, diferente kontatzen dira istorioak. Bakoitzak bere hizkuntza dauka. Literaturak be badauzka beste kode batzuk, diferenteak. Hori dena kontuan hartzen ez den bitartean, gidoilari batzuek hiru lerroko esaldi ahoskaezinak idazten jarraituko dute (aktoreak ito guran?).

Alderantziz be gertatzen da. Gidoia ondo idatzitakoa denean, pertsonaiak erabiltzen duen hizkuntza erabilia eta barneko logika mantenduz, ea konturatu barik, esfortzu barik sartzen da buruan testua eta berba bakoitza disfrutatzen da. Orduan gidoiak eta aktoreak bat egin eta antzezpenak berak egiten du hegaz.



### 3. BATUA ETA EUSKALKIAK

Gure herri honetan, euskaraz lan egiten dugun aktoreok beste oztopo batez be egiten dugu topo lehenago edo geroago. Gure hizkuntza ez da bat, hamaika baino. Hori, zalantza barik, ezin aberasgarria izan daiteke, eta baita korapilatsua be.

Batetik, batua daukagu. Idazteko, akademikoki erabilia izateko; batzuen ustez, “artifiziala” eta lar formala.

Bestetik, euskalkiak daukagu: bizkaiera, gipuzkera, nafarrera... bakoitza bere ezberdintasunekaz... kostaldetik barrualdera, herritik herrira aldatzen dira berbak, doinuak, esateko erak... Hau da, aberastasun itzela, zoratzeko modukoa.

Eta, azkenik, hirugarren euskara mota bat, “euskaldun berriona”: batua, erdara eta euskalkiren baten koktela.

Hiru aukera horiek dira baliotsuak aktore batentzat. Baratze ederra pertsonaiei kolorea emoteko orduan. Baina badira berari ez dagozkion erabakiak.

Aurkezle lanetan ibiltzeko orduan edo bikoizten edo zeozer neutroa bilatzen denean, adostuta beharko luke zer euskara mota erabili, eta hori ez da aktorearen lana zertan izan. Beste batzuei dagokie.

Gaur egun irizpide bi ikusten ditut nik orokorrean:

1/ **Batua erabiltzea irizpide nagusi legez:** ez euskara batu gordina, baizik eta euskalkietatik ekarpena eginez aditz laguntzaileak aldatu barik. Hau da irizpide berria: batua euskalkiz janztea.

Adibidez: “Esan gura dizut” (eta ez “dotzut”)

Hau erabiltzearen arrazoia: euskara denok ulertzeko modukoa eta denontzako izatea.

2/ **Euskalkiak erabiltzea.** Aprobetxatzea daukagun aniztasuna eta lan egiteko tresna bihurtzea. Euskalkien bizirautea bermatuz.

Batzuek egin dute euskalkien aldeko apustua, bai antzerkian eta baita telebistan be, baina esan beharra dago banaketa ez dela oso ekitatiboa izan, eta Iparraldeko eta Bizkaiko euskalkien presentzia txikiagoa izan dela (telebistan, irratian eta zineman behizat; antzerkian gutxiago). Arrazoia? Tristeia da entzutea euskalki batzuk oso zikinduta daudela, ez direla garbiak, zatarrak direla... tamainako astakeriak eta aurreiritziak egon badaude (neu lekuko).

Hirugarren hizkeraren aldeko apusturik ez du ia inork egiten. Hau da, badirudi euskaldun berrion euskara interpretazio arloan ez dela erakargarria. Oso gutxitan

erabiltzen da, nahiz eta beste tresna bat izan. Erabilia izan denean askotan kritika gogorrak egin dizkiete euskal *puristek*. Jakina, betiko euskalkiak “kutsatuta” badaude, zer esan euskadun berrion euskaraz!! Batzuetan emoten du barkamena ere eskatu behar dela euskaraz berba egiten hasi baino lehen. Eskerrak batzuek uste dugun hobe dela berba egitea nahiz eta hanka sartu, ez egitea baino. Herri honetako errealitate bat gara, gero eta handiagoa gainera, eta eskerrak, geuk be mantenduko baitugu euskara bizirik. Aktore asko be bagara euskaldun berriak, eta, beraz, dagokigun lekua aldarrikatzen dugu.

Dena den, akats itzela da hiru irizpide horiek bananduta ikustea. Osagarri dira, nire ustez. Hirurokatz bat egitea da onena. Hamaika aukera dago bakoitzak bere lekua eta momentua izateko.

Euskalkien altxorra hor daukagu, batuaren orokortasuna eta formaltasuna be bai, euskaldun berriaren akats, doinu aldaketa eta asmakuntza kuriosoak be bai. Bizi-bizirik daukagu hizkuntza eta mila bide eskaintzen dizkigu; beraz, ordua da belarriak fintzen hasteko eta dauzkagun tresna guztiak erabiltzeko.

Eta gero... aktoreok berdin-berdin jarraituko dugu, seguruenik. Ahal den heinean, testuak aldatzen, geureganatzen, gidaien kontra borrokatzen... sortzaile izaten jarraitzeko. Aber!



## EUSKALKIAK ETA BATUA



**Xabier Amuriza**  
**Bertsolaria eta idazlea**

Gaiari alde askotatik hel dakioker. Nik, beste gabe, neuk zer egiten dudana azalduko dut. Edo zer egiten saiatzen naizen, edo saiatu behar nukeen. Segun non, edo norbera zelan dagoen, lizentziak ere behar baino gehiago hartzen dira. Garbi esanda, lorrinak ere egiten dira. Egun onak eta txarrak izaten diren moduan, egun inkoherenteak ere badira, eta dena sartzen da kalitate aldakorraren gaman. Baina jokalege sendo batzuk nahitaezko dira. Eta, jakina, Bizkaiko euskalkiaz emango ditudan arrazoi- eta jardun-bideak beste euskalki guztietan ere berdintsu aplikatu daitezke.

### **NON ZER, GEOGRAFIKOKI ETA TEORIKOKI**

- 1) Bizkaian bizkaiera. Horretan sekula ez dut dudarik izan.
- 2) Gipuzkoan gipuzkera, euskalki hori, zorionez, nahiko ondo menperatzen baitut. Berdintsu egin ohi dut Nafarroa Gipuzkoatik hurbilean ere, non ohituago dauden (suposatzen dut) gipuzkera entzuten. Eta non, batez ere, bertakoa ez dudana menperatzen.
- 3) Batua, beste guztietan: Iparraldean, Nafarroa urrunagoan, Araban...
- 4) Edonon, euskaldun berrien edo hauen proportzioa nagusi dela suposatzen den publikoetan, Bizkaia barne. Hemen suposamen hori aldatuz joan naiz, edo aldarazi didate. Laurogeiko hamarkada inguruan, Bilbon, Ezkerraldean eta abar, zenbait saio batuan egiten nituen,